

Felipe Munduate Zurutuza

*Ataun, Gipuzkoa
(1937)*

Aurkibidea

Biografia



Ataungo Telletxe baserrian jaio zen (Lauztierreka auzoan). Gaur egun San Gregorio auzoko Olaran etxean bizi da. Emaztea San Martin auzokoa du. Baserritarra eta ehiztaria.

Zintak

ATA-006

- **Proiektua:** Euskal Herriko txori eta animaliak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2007-06-16
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Pulido, Alejandro
- **Emalea:** Sarasua Aranberri, Asier

Pasarteak

1. San Gregorio festak

- **Erref:** ATA-006/003
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:03:35. **Bukatu:** 00:06:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Jaiak asko aldatu dira lehendik. San Gregorio santuaren eguna dataz aldatu zutela azaltzen du. San Gregorio festak nolakoak izaten ziren. Aizkolariak eta bizikleta-lasterketak egoten ziren. San Martingoan eta San Gregoriokoan arteko pikeak. Dantza lotua debekatuta zegoen eta dantzan harrapatuz gero kongregaziotik botatzen zituzten.</p>

Transkripzioa

- Esan didazu hemen, e, jaiak-eta... jaiak-eta asko aldatu dila.
- Bai.
- Asko kanbiatu?
- Lehen izaten huan hamabin, martxon hamabin. Ta oain, zean, agorren, agorren hirun.
- Eta zergatik kanbiatu zan o?
- Santue kendu zuelako egun hartan, egun hartako [...]
- Zein zan ba?
- San Gregorio. Ta hua [...] aldau zien ta baita festak´e.
- Klaro. Eta oain agorren?
- E?
- Agorren oain?
- Oain agorren.
- Hobeto?
- Bueno, ba, igualtsu. Lehen, lehen haseran, festan haseran izaten hittun. Ta oain ia bukaeran.
- Bukaeran. azkenetakok.
- Azkenetakok.
- Inguruko azkenetakok izango dia.
- Bai ba. Lehen haseran ta oain azkenen. Bukaeran.
- Eta... nolakoak izaten zian festak?
- Gureztat onak. Oain baiño hobek.

- Hobek, ez? Eta nolakoak izaten zian?

- Ba... bertako aizkolarin batzuk apustu bezela. Ta karrerak´e bai,ze, bizikleta karrerak eitten hittun.

- A bai, bizikleta?

- Bai. Bertako Luistarrak-eta. Geo, geo, eoten huan ba pelea, barrio batekin besteekin ta...

- San Martin ta...?

- San Martin ta San Gregorio. Beti pelean ta batekok hobek ziela bestekok hobek ziela ta hola.

- Ta pelek?

- Ta hortan.

- Bai e?

- Bai. Oain antzin.

- Eta dantza-ta izango zan, ez?

- Bai, dantza, dantza librea, ordun jeneralen izaten huan.

- Libre beti?

- Bai.

- Agarrauk-eta?

- Agarraua debekauta.

- Debekauta?

- Bai. Apaizak...

- Non? San Gregorion?

- ...apaizak.

- Eta apaiza begira ibiltzen zan?

- Harrapau ezkeo, zea, kongregaziotik bota ta...

- Bai e?

- Luistarrak eta, Marian alabak-eta. Ordun bai, hola izaten hittun gaztek ta... kongregaziotik igual bota. Deskuidon harrapatzen bazittuen eo jakiten bazuen ibilli zala ta.

2. Arantzamendiko erromeria; San Gregorioko frontoian gramola

- **Erref:** ATA-006/004
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:06:00. **Bukatu:** 00:09:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Arantzamendi izeneko mendian erromeria egiten zen. Soinujolea egoten zen eta gazte asko joaten ziren. Lotuan dantza eginez gero kongregaziotik botatzen zituzten. Inguruetako mendi-erromeriak. Klean frontoian egiten zen erromeria. Apaizak gramola jartzen zuen. Inguruko herrietatik jende asko etortzen zen jaietan. Batzuetan Lazkaoko "Gorrie" soinujolea egoten zen.</p>

Transkripzioa

-Geo hemen, goien Arantzumendi edo hots itten zien ta, hor goiko mendi baten, hor zea itten huan erromerie. Jaietan hauntza jentea, gazte-jentea. Ta hor soinujolek izeten hittun ba hola xaxi-soiñujole batzuk eta horik soinue jotzen zuela ba han agarrauan igual ibiltzen hittun, eta jakitten bazuen ba, benga!, kastigue.

- Ordun herriin solten, baina gero mendiin ezkutun.

-Mendiin ezkutun, eta hola.

- Eta nun esan dezu izaten ziala erromeiak?

-Arantzamendi esaten dien hor goiko gain baten.

- Eta hori udan, uda parten?

-Bai, uda parten. Negun ez. Negun bertan, hemen.

- Eta goian, Arantzamendin, jende asko elkartzen zan?

- Nik ez nian hauntza joerarik baiño hemen baittun hor goiko barrio ta... Bestealdekok eta... Nere andreen aldeko barrio... ze hori, san Martingo horik eta horik iotzen hittun horrea.

- Baina Ataun inguruko koadrilla.

- Ataungok eta Idiazabaldarrak'e asko. Biitakok.

- Bestaldetik.

- Bai.

- Mendien bestaldetik.

- Nola daon erdi paren, erdi mugan bezela. Biitakok apuntatzen hittun horrea.

- Ta giro ederra ta?

- Hoixe. Ona izaten zalako juten giñun nunbait.

- Eta tabernarik-eta izaten zan?

- Tabernarik ez.

- Soinua ta dantza.

- Bakoitzek beak eramaten zon... Geo iturri bat zian azpiko alden, barrenen. Ta hue tabernea.

-Ura, ez?

-Ura, ura eateko.

-Eta kalen? Kaleko erromeiak-eta?

- Kalekoa hemen, zean hittun, frontoian.

-Oaingo frontoi hortan?

- Ez, hoi gero eindakoa dek. Hor frontoi librea huan lehen. Gero ein zien estalie.

- Baina bertan?

- Bertan. Bai, bai. Leku hortan bertan.

- Eta hantxe erromerie-ta?

- Hantxe.

- Eta...

- Eta apez bat bagenduan, horrek gramola edo jarri zian. Gramola ba... diskok-eta jotzeko.

- Eta berak jartzen zun musika?

- Beak musika´re.

-Apezak?

-Bai. Jendea juntatzeko. Eta hemengo... Hemen jendea juntatzen huan, festatan oain juntatzen dan baiño askoz gehio jaietan.

- Beste jairik ez zan izango, ez?

- Idiazabaldarrak, lazkaotarrak, Lazkaomendi, Zaldibi, Ordizi... Leku askotati, e. Kantidadea jendea.

- San Gregorio egunen?

-Bai, ez, ez,San Gregorio. Jaietan, jaietan, edozein... jai sueltotan

- Erromerietan.

-Bai, bai.

-Eta beste herri batzuetatik orduan?

-Bai, Zaldibiti, Lazkaomendi, Lazkao, Ordiziti ere bai, Idiazabal...

- Jai inportantea zan, orduan?

- Asko jendea edozein jaitan.

- Eta giro polita?

- Bai, jode. Dantza gramolakin-ta. Gero soinujolea`re eoten huan tartetan.

- Zein?
 - Hemen, Lazkaokoa, 'Gorrie' edo esaten ziena.
 - Ona?
 - Bueno, ona... orduko... moldatzeko modun, poliki. Baiño oaingo soinujolek bezin ona ez.
 - Baina dantza egiteko ta?
 - Dantza egiteko nahikoa.
 - Eta gero txapela pasatzen zun edo?
 - Ez, ez. Txapelik ez.
 - Txapelik ez.
 -Keba.
 -Ez zan ordaintzen?
 -Ez. Geo gramola asunto hoi berriz apaizan kontua. Harek jartzen zian eta. Hola, festa.

3. Ataungo auzoen arteko ika-mikak

- **Erref:** ATA-006/006
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:09:40. **Bukatu:** 00:12:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Ataungo auzoak: San Gregorio, San Martin eta Aia. Lehen bakoitzak bere aldetik gehiago jotzen zuen eta ika-mikak izaten zituzten, batez ere kirolean. Hala ere, jaietan batetik bestera joaten ziren. Auzo batek lasterketa jartzen zuenean besteak ere bai. Aiakoek Aiarako igoera jartzen zuten.</p>

Transkripzioa

-Ataunen hiru barrio dia, ez?
 -Bai.
 -Hiru barrio nausi.
 -San Gregorio, bueno, San Martin, San Gregorio ta Aia.
 - Baina bakoitza, bere... pixkat aparte, ez?
 - Bai, bakoitza bere...
 -Independiente.
 - Bai, je. Oain geihio zeetzen dek, unitzen dek, oain bat gehio eginda zeok.
 -Ta lehen?
 - Lehen bakoitza bee alden bezela.
 - Bai? Danak ataundarrak baina...
 -Baina sangregoriotarrak, sanmartindarrak eta aiatarrak.
 -Bai, e. Eta pikia izaten zan?
 -Pikea. Deporten ta beti pikea.
 -Gazteen artean-ta.
 -Bizikletan-eta, aizkoran-eta, dana tipo hortaa.
 - Apustu kontuak-eta?
 -Apustu kontuk-eta.
 -Eta pikea bakarrik izaten zan edo burrukak eta. Izango zian burrukak...
 -Ez, ez. Burrukaraino ez, hoinbestekoik ez. Pikea bai deporte asunttoon - eta.
 -Baina geo San Martingo jaiak-eta zianen...

-Gero San Martingo jaiak zianen...
 - Hara juten zinaten ...?
 -Harea bai, bai.
 -Eta hangook hona etorri ta...
 -Hiru barriotakook ta... Geo beste jai batzutan, igual izaten huan beste zera bat, edo Luistarren karrera jarri zala edo. Luistarrak igual hemen jarri karrera ta hangook etortzen hittun ta hemengook ee bai ta. Harek'e pelean, bata besteen pikea... Geo han'e jarriko zien, San Martinen´e.
 -Han karrera.
 - Han´e karrera. Bai, karrera bertakoona ere bai.
 -Eta... aiarrak? Gutxio izango dia, ez?
 -Aiarrak, e... aiarrak jartzen zien subidea, Aiakoa.
 -A bai, bizikletan?
 -Bai.
 -Bertatik, hemendik edo?
 - Bai, Kaxetatik, Kaxetatik Aiara. Batzutan kontra-reloj igual izaten huan ta geo hurrana jarri zien bueltea ematea. Aian salidea hartu ta San Martindik, Kasetatik Aiaa berriz.
 -Aiatik San Martinea, hona, hamendik pasa.
 - Hemendi pasa ta llegadea berriz goien. Aian.
 - Ta ordun afizio haundia zeon, ez?
 -Afizioa, ba! Gazteek bai, afizioa.
 -Bizikletan-ta.
 -Ta korrika-apustuk'e jartzen zittuen bertan-eta. Hemen´e baitta.
 - Ordun deporte kontuk-eta... dexente.
 - Bai, deporte kontuuk dexente.

4. Urrestarazu txirrindulariak

- **Erref:** ATA-006/007
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:12:30. **Bukatu:** 00:13:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

<p>Ataunen baziren txirrindulari onak: Urrestarazu, Etxeberria❖ Urrestarazu anaiak Espainiako itzulian ibili ziren. Urte batean Frantziako tourrera joateko aukera ere izan zuen, baina gaixorik zegoenez ezin izan zen joan.</p>

Transkripzioa

- Ordun deporte kontuk-eta dexente.
 - Bai, deporte kontuuk dexente.
 -Eta bizikletan-eta bazan Ataunen, horrela... on-ona?
 -Bai! Bastante onak bai.Txatook-eta, Urrestarazu.
 -Hemengok?
 -Hemengok. San Martingok.
 -San Martingok. Hemengoa genduan Etxeberria.
 -Hori´re ona.
 -Bai, ona edo. Pelotoian ibiltzen dana. Baino profesionaletan korritu zian harek, e. Vuelta a España korritu zian Txatxok, Urrestarazu anai horik. Ta urte baten Frantziaa ere hartu zien.
 -Tourrea?
 -Ta ordun izaten huan "Equipo nacional" bakarrik Vuelta Frantziaako ta...

Bai, ekipon hua hartu zien urte baten. Baino, bea ez zuan ondo tokau, katarrokin edo gripe edo ez zekiat zer, ta geo ez zien eaman, ez zion aillegau jutea.

- Pena.

-Baino bestela ondo ibiltzen zienak.

- Eta hemengo karreretan-eta?

- Hemengo karreratan ´e bai. Ta irabazi ere bai hemengo karrerak.

- Profesionalak-eta.

- Urrestarazu gaztea, espiñen eta ona huan. Vuelta Andaluzin urte baten irabazi zituan hiru etapa edo.

5. San Martin auzoa inportanteena

• **Erref:** ATA-006/008

• **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:13:40. **Bukatu:** 00:14:50

• **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Ataungo auzoek bakoitzak bere eskolak eta elizak zituen. Gerora San Martinen jarri zuten denentzat eskola. San Martin da auzo garrantzitsuena bertan daudelako udaletxea eta bestelako zerbitzuak.</p>

Transkripzioa

-Eta bestela zuek auzo bakoitza, barrio bakoitza, San Martin ta San Gregorio-ta, hiru barriook, bakoitza bee eliza eta kanposantu ee bai?

- Bai,baita. Bai, bai, kanposantu...

- Eskola ta...

-Eskolak-eta, bakoitza bere barrioon. Oain, gero, jarri zien hor, eskola, San Martinen, danantzako. Danantzako... hemen ikestola, hemen, jarri zien. Baino ia [...´re hon], dana ez zeon, beera, San Martinen.

- Baina leeno, bakoitza...

- Leeno bakoitza bee aldeti. Bakoitza bee elizea, eskolak-eta.

Aiuntamentue bat.

-Han

- Han, San Martinen.

-Ordun, barrio inportanteena zein [...da]?

- Caja de ahorros ere han.

- San Martin ordun...

- San Martinen jefe.

- Diru kontuak-eta San Martinen?

-Dena San Martinen. San Martin nausie, kapitala.

6. Ehizarako zaletasuna; basurdeak inguruetan

• **Erref:** ATA-006/009

• **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:14:50. **Bukatu:** 00:15:50

• **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

16-17 urterekin hasi zen ehizan aitaren eskopeta hartuta. Usotan egiten du, baina basurdetan ere egiten zuen hasieran. Basurdeak badira inguruetan eta etxe ondoraino ere etortzen dira gaur egun.

Transkripzioa

- Eta ehiza kontu ta holakotan noiz hasi zinan?
- Ehiza kontutan gaztetan.
- Gazte gaztetatik?
- Bai. Hamasei-hamazpi urtekin.
- Aitakin edo?
- Aitan eskupetea hartu ta... Hue kanpon ikusten noonnen hartu ta fuera usotaa!
- Mendira....
- Usotaa?
- Usotaa. Basurdetan ere bai haseran.
- Hemen asko izango dia.
- Basurdea urte baten asko [izan huan]. Ta oain'e izaten dituk, e. Oain´e bastante.
- Hemen Lizarrusti inguruan?
- Bai, Lizarrusti... Hemen bertako mendiotan ta. Ia atariaño etortzen dituk oain basurdek, bai.
- A bai?
- Hemen beheko intxaurretan ta igual.
- Beldurra galduta?
- Ba! Ohittuta jendeakin ya.

7. Umetan, txori-habia bila

- **Erref:** ATA-006/010
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:15:50. **Bukatu:** 00:18:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Hegaztiak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Umetan, txori-habia bila ibiltzen zen. Klase askotako txoriak izaten ziren inguruetan: txepetxak, okilak... Txepetxen habiak bilatzen zituen gehienetan berak. Batzuetan, arrautzak jan ere egiten zituzten. Txepetxaren arrautzak txiki-txikiak izaten dira, baina jateko goxoak. Beste txori-klase batzuk.

Transkripzioa

- Eta umetan-eta ez zinan ibiltzen txori habik-eta?
- Txori-hapik bilatzen bai.
- Hori txiki-txikitatik.
- Txiki-txikitatik hori txori-hapi bila. Hortan bai.
- Bai?
- Bai.
- Ta hamen asko izango zan ordun, ez?
- Bueno, asko. Klase´ateko ta besteko, txepetxa-ta, geo... zuloa ta itten zien ba, okilek eta,

burubeltxak eta, holako danak.

-Eta...

- Ta beste bela-ta, zapelaitz-ta. Hoik danak'e bai.

-Eta zuk zer bilatzen zenun gehienbat. Habiak-eta zerenak?

- Ba, gehienak txepetxanak.

-Txepetxanak gehien?

-Bai.

-Eta gero, e...?

-Gue etxeko atarin, aten igual eitten zien eta.

- Eta gero arrautzak edo kumak hartu, edo bertan utzi edo zer...?

-Batzutan arrautzak igual jan.

-Jan?

-Umeek bai, hau ona izate'ek eta benga, jan. Ta hola.

-Txepetxanak´e bai.

-Txepetxanak´e bai.

-Txiki-txikiak izango dia, ez?

-Ta atzea berriz igual eiten zoan. Beste hainbeste...

-A, bai? Beste kumaldi bat?

-Bai.

-Ta txiki-txikiak izango dia txepetxan arrautzak.

-Txiki-txikik, erabat txikik. Hola, ur-alen modukok. Ur-ale koskorran modukok.

-Eta jateko goxo?

-Jateko oso onak.

-Bai, e?

-Zaharrak ez bazien, zaharrak izan ezkeo umeek figurauta eoten dittuk eta harek ez zeok jateik.

-Klaro.

-Haek piztik eta hola jaten zituek.

- Eta hori txepetxanak, eta beste batzuenak ere bai? Zozok eta birigarrok eta...

-Bai. Eskuxok eta.

-Eskusok?

- Eskuxok. Zuek zer esaten dezue, eskinisua?

- Bai, eskilarasua.

-Eskilarasua?

-Eskilarasua, bai, e?

-Zuek eskuxok?

8. Ataundik hurbileneko hizkerak Lazkaokoa eta Zaldibiakoa

- **Erref:** ATA-006/013
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:24:55. **Bukatu:** 00:26:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

<p>Beasaindik Ataunera txori-izenak aldatu egiten direla dio. Esate baterako: buztanikarari beraiek ur-txoria deitzen diote. Orokorrean ere Lazkaoko euskaratik Ataunekora badela aldea dio. Hurbileneko euskarak Lazkaokoa eta Zaldibiakoa iruditzen zaizkio; Idiazabalgoa desberdinagoa eta Segura edo Zegamakoa are desberdinagoak.</p>

Transkripzioa

-Esan dezu txori izenetan-eta badala... aldatu egiten dala.
-Diferentzie, bai.
- Beasaindik honea ta...
-Asko.
-Bai, e?
- Bai.
-Eta beste herri batzukin´e bai? Zaldibi ta Segura ta...
-Danakin, batzuk postura igualtsun, baiño beste´atzuk oso diferente igual.
-Buztanikara esan dezu...
-Buztanikara batzuk.
-Ur-txorie.
-Guk ur-txorie.
-Eta zuk beste herri batzutan-ta ikusi dezu diferente dala?
-Bai. Beste izen klase dezente zerek.
- Eta bestela, euskara kontuak´e bai diferente dia...
-Baita.
- Lazkaotik honea Atauna ta?
-Bai, diferentzi pixkat bai hortan'e.
-Eta berdintsuena zein da, Ataungo euskara-ta. Zaldibikoa edo Lazkaokoa edo?
-Zaldibikoa igual gehio, bueno, Lazkaokoa ere bai.
-Berdintsu. Eta Idiazabalgoa?
-Idiazabalgoa diferentegoa.
-Bai?
-Bai.
- Segurukoa ere bai?
-Bai. Segurukoa diferentzia haundie.
-Bai?
-Bai.
-Segura, Zegama...
-Bai.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com